

Solidoen, likidoen eta gasen propietateak

BERRIKUSI INFORMAZIO HAU.

Solidoek bolumen konstantea eta forma finkoa dute, indar batek haietan eragin eta deformatzen edo hausten ez baditu.

Likidoek bolumen konstantea dute, baina forma ontzira egokitzen da.

Gasek bolumen eta forma aldakorak dituzte: konprimatu eta hedatu egin daitezke.

1.-Esaldi hauetako bat zuzena da. Zein da?

- ☐ Harriak solidoak dira, eta indar bat eragiten badiegu eta apurtzen baditugu, haien forma aldatu egiten da.
- ☐ Aire gas bat da, eta haren bolumena ez da aldatzen, indar batek konprimatzen badu.
- ☐ Gomazko puxikak erresistenteak dira, deformatu ondoren beren forma berreskuratzen baitute.

2.- Lehen irudian, 10 cm³ aire dituen xiringa bat dago. Bigarren irudian, xiringaren enboloa bultzatu dugu, airea irteten utzi gabe, 5 cm³ -ra iritsi arte. Adierazi gertatutakoa behar bezala azaltzen duten hiru esaldiak.


A-n airearen bolumena B-n baino handiagoa da.

A-n airearen masa B-n baino handiagoa da.

Bi xiringetan, aire kantitate bera dago.

A-n airea konprimatuago dago B-n baino.

B-n airea konprimatuago dago A-n baino.



3.-Lotu bi zutabeak:

Aise puskatzen da.

Forma berreskuratzen du deformatu ondoren.

Esfortzu bat jasaten du deformatu gabe.

Erraz tolesten da.

Marratzen zaila da.

- Malgutasuna _
- Gogortasuna _
- Hauskortasuna
- Elastikotasuna .
- Erresistentzia _